


2024

CHECKLIST

Energia-eraginkortasuna etxebizitzetan



Etxean energia neurtzeko maleta honekin eta checklist-arekin etxeko energia-kontsumoa modu pertsonalizatuan diagnostikatu eta ulertu ahal izango duzu, eta energia-eraginkortasuna hobetzeko eta faktura elektrikoa murrizteko irtenbideak eman ahal izango dituzu. Etxean neurketak egin ahal izango dituzu, energia-gabeziak detektatu (berokuntza-erradiadoreetan izandako galerak, ur-emariaren kontrola, etab.) eta, horrela, aurrezteko neurri errazak hartu. Maletako tresnak erabiltzeko ez da ezagutza teknikorik behar; beraz, interesa duten pertsona guztiak erraz erabili ahal izango dute. Gainera, urratsez urrats erakusten dira bakoitza erabiltzeko jarraibideak.

Etxean neurketak egiteko maletak 6 tresna praktiko ditu:

- Aire-ihesen detektagailua.
- Termometroa eta higrometroa.
- Erradiadoreen purgagailua.
- Entxuferako elektrizitate-kontsumoaren neurgailua.
- Hozkailurako termometroa.
- Uraren emaria neurtzeko kronometroa.

Sustatzailea:

Debegesa (www.debegesa.eus)

Diseinua eta maketazioa:

Chroma (www.chroma.eus)

Eduki narratiboa:

Debegesa

Finantzatzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Jasangarritasun Departamentua
(<https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/jasangarritasuna>)

Data:

2024ko otsaila

01

Argiztapena

I-1	Etxebizitzan instalatutako argiztapenaren % 50 gutxienez led motakoa da eta/edo laster lanpara gori, halogeno eta fluoreszenteen ordez led jartzeko asmoa dago.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-2	Etxebizitzan gehien erabiltzen diren guneek (sukaldea, egongela, gelak, korridorea...) led motako argiztapena dute.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-3	Etxebizitzan argiztapena automatikoki kontrolatzeko sistemaren bat dago (presentzia-detektagailuak, etengailu tenporizatuak, etab.)	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-4	Etxebizitzan eta/edo eraikineko eremu komunetan argiztapena kontrolatzeko sistemak daude, argiztapen naturalaren arabera.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-5	Azalera handieneko eremuetan etengailu zonifikatuak daude, eta, beraz, ez da beharrezkoa argiztapen guztia batera piztea.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-6	Eremu bakoitzeko argiztapen-mailak beharren arabera dira. Hormek eta sabaiek kolore argiak dituzte, argi naturala aprobetxatuz.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-7	Aldizka lanparak eta luminariak garbitzen dira. Luminarien zikinkeriak argitasuna gutxitzen du.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
I-8	Instalatutako lanpara eta luminariak diseinu eraginkorrak dituzte, kolore argiak eta/edo gardenak, eta ez dute igorritako argiztapena xurgatzen.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

ZENBAT ERANTZUNI ERANTZUN ZAIE BAI BATEKIN?

BAI BATEKIN ERANTZUN DIREN ERANTZUNEN ARABERA

ERANTZUNAK - ARGIZTAPENA

Otik 2ra

Argiztapena hobetzeko potentzial handia dago. Etxebizitzaren energia-kontsumoaren % 20 inguru argiztapenerako erabiltzen da; beraz, garrantzitsua da kontsumoa murrizteko neurriak hartzea. Hori lortzeko, ekipoetan bertan jardun behar da, led bidez ordezkaturaz eta kontrol- eta erregulazio-sistemak hobetuz.

3tik 5era

Negatiboki erantzun diren erantzunak aztertzea gomendatzen da, hobekuntza horiek argiztapen sistemetan aplikatzeko. Kontrol-sistemak hobetzea, zonifikazio ona izatea eta argiztapen-ekipoak mantentzeko eta garbitzeko lanak egitea proposatzen da.

6tik 8ra

Argiztapena hobetzeko neurriak aplikatzen jarraitu. Garrantzitsua da argiztapen-ekipoak mantentze- eta garbiketako egoera onean izatea, eta argiztapen-mailak kontrolatzea.

02

Berokuntza eta UBS

C-1	Berokuntza eta/edo ur bero sanitarioa (UBS) sortzeko ekipook instalatu eta/edo berritu egin dira azken 4 urteetan.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-2	Galdararen instalazio-urteari, tipologiari eta galdaren eta/edo berogailuen errendimenduei buruzko informazioa dago.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-3	Berogailua kontrolatzeko, etxebizitzak gutxienez tenperatura-termostato bat du, eta eskuz erregulatu daiteke beharren arabera.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-4	Berogailua kontrolatzeko, etxebizitzak gutxienez termostato programagarri bat du automatikoki piztu eta itzaltzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-5	Etxebizitzak kontrol-/erregulazio-eremu bat baino gehiago ditu.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-6	Ur-erradiadoreek balbula termostatikoak dituzte.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-7	Erradiadoreak leku egokian daude, gune hotzetatik urrun (leihoak, adibidez), eta ez daude fatxadan sartuta.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-8	Leihoak irekitzean berokuntza automatikoki deskonektatzeko gailuak daude.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
C-9	Etxebizitzako termostatoa automatikoki programatuta dago (edo eskuz erregulatzen da) egunez tenperatura 19 °C-ko maximoan erregulatzeko, eta gauean deskonektatzen da edo 17-18 °C-an mantentzen da.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

C-10

Etxebizitzak zoru erradiatzailea du.

BAI

EZ

C-11

Urtean behin, gutxienez, erradiadoreak berrikusten dira, eta purgatu egiten dira eduki dezaketen airea ateratzeko.



BAI

EZ

Erradiadorea maiz purgatzeak beroketa hobeezina izateko aukera ematen du, bai denboran bai berotze-ahalmenean. Barruan airea metatzen badute, erradiadoreek ez dute eraginkortasunez funtzionatzen; beraz, komeni da berokuntzako ur-zirkuituaren presio egokia mantentzea.

Maletan aurkituko duzun giltzak harrapatutako airea askatzen lagunduko dizu.

Urratsez urrats:



(12-15 orrialdeak, "Etxeko energia neurtzeko maleta" -ren erabiltzailearen eskuliburua)

C-12

Txorrotek monomando nahasketa-sistema dute edo termostatikoak dira, ur bero sanitarioaren tenperatura eta emaria erregulatzeko.


BAI

EZ

Konsumitutako emaria murriztuz, erabilitako gehiegizko ura bertzeko behar den energia murrizten da.

Dutxaren eta txorrotek emaria maletan aurkituko duzun kronometroaren bidez kalkula daiteke. Ariketa honek fluxu baxuko txorrotak, aireztagailuak eta dutxa-buru eraginkorrak non instalatu ditzakezun identifikatzen ere lagunduko ditu.

Urratsez urrats:



(27-29 orrialdeak, "Etxeko energia neurtzeko maleta"-ren erabiltzailearen eskuliburua)

ZENBAT ERANTZUNI ERANTZUN ZAIE BAI BATEKIN?

BAI BATEKIN ERANTZUN DIREN ERANTZUNEN ARABERA

ERANTZUNAK - BEROKUNTZA ETA UBS

Otik 4ra

Instalazio termikoak hobetzeko potentziala dago. Sorkuntza-ekipoak errendimendu handiko ekipo berriein ordezkatzeta eta/edo kontrol- eta erregulazio-sistemak hobetzea proposatzen da.

5etik 9ra

Energiari buruzko alderdiak kontuan hartu dituen instalazio termiko bat du etxebizitzak. Kontrol- eta erregulazio-sistemak hobetu daitezke eta/edo energia berriztagarrien instalazioa planteatu.

10etik 12ra

Instalazio termikoaren energia-eraginkortasunaren maila handia da. Etxebizitzak energia berriztagarri bidezko ekarpenik ez badu, sistema berri horien ezarpena baloratu. Errendimendu handia dutenez, sistema horiek kontsumoa murriztuko dute, baita CO₂ emisioak ere.


03

Inguratzailea


E-1	Etxebizitzaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria indarrean dago.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
E-2	Etxebizitzak hegoaldera begira dauden bao eta leihoak ditu, energia-ekarpenak aprobetxatuz.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
E-3	Leihoek beira bikoitza eta aire-ganbera dute, eta PVCzko edo aluminiozko markoak, zubi termikoaren hausturarekin.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
E-4	Neguko hilabeteetan, pertsianak egunero jaisten dira iluntzean, barruko beroa gal ez dadin.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
E-5	Pertsiana-kaxak estankokoak dira eta ondo isolatuta daude. Ez dago aire-iragazketarik ezta zirrikiturik eta behar bezala isolatuta daude.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
E-6	Duela gutxi birgaitze bat egin da, SATE (Kanpoko Isolamendu Termikoko Sistema) edo fatxada aireztatu bidez.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
E-7	Epe laburrean ingurutzailera birgaitzeko proiektu bat gauzatzeko asmoa dago, bero-galerak eta/edo hezetasun- eta kondentsazio-arazoak saihesteko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

Maletan aurkituko duzun termometroak eta higrometroak gela bateko tenperatura eta hezetasuna neurtzen lagunduko dizu, baita horrelako arazorik dagoen jakiten ere.

Urratsez urrats:



(9-11 orrialdeak, "Etxe energia neurtzeko maleta" -ren erabiltzailearen eskuliburua)



E-8



Inguratzailean isolamendu termiko egokia dago.

BAI

EZ

Isolamendu egoki batek zure etxebizitzako bero-galerak saihesten ditu.

Maletan aurkituko duzun aire-ihesen detektagailuak zure etxebizitzako bero-galerak detektatzen lagunduko dizu, baita hormen, leihoen eta ateen temperatura neurtzen ere, koloretako argiekin temperatura-aldaketak erakutsiz. Baliagarria da aire termikoko korrontek eta isolamendu handiagooa behar duten eremuak identifikatzeko.

Urratsez urrats:

(5-8 orrialdeak, "Etxeko energia neurtzeko maleta" -ren erabiltzailearen eskuliburua)

ZENBAT ERANTZUNI ERANTZUN ZAIE BAI BATEKIN?

BAI BATEKIN ERANTZUN DIREN ERANTZUNEN ARABERA

ERANTZUNAK - INGURATZAILEA

0tik 2ra

Eraikinaren inguratzailea energia-konsumoa murrizteko elementu garrantzitsua da. Etxebizitza ondo isolatuta edukitzeak klimatizazio-eskaera murriztea dakar; beraz, garrantzitsua da epe laburrean edo ertainean inguratzailean neurriak hartzea.

3tik 5era

Etxebizitza tarteko puntu batetik abiatzen da bere inguratzailearen energia-eraginkortasunari dagokionez, eta epe labur edo ertainean inguratzaile ondo isolatua lortzeko neurri berriak hartzea proposatzen da, klimatizazio-eskaera murriztu ahal izateko, bai itxitura opakoen bidez, bai kristalezko baoen, pertsiana-kaxen, zubi termikoen eta abarren bidez.

6tik 8ra


Etxebizitza abiapuntu onean dago, inguratzailean hobekuntzak egin badira eta/edo epe laburrean egitea erabakita badago. Garrantzitsua da inguratzailearen elementuak behar bezala mantentzea, kontserbazio ona bermatuz.

04

Instalatutako ekipamendua


EQ-1	Etxetresna elektrikoak (batez ere gehien kontsumitzen dutenak, hozkailua, esaterako) irizpide energetikoen arabera erosten dira, etiketa energetikoan dagoen informazioa kontuan hartuta.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-2	Gailu elektroniko eta informatikoek Energy star etiketa dute.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-3	Entxufe batzuek erabat itzaltzeko tekla edo lapurra dute, stand-by hondar-kontsumoa saihesteko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-4	30 minututik gorako absentsietan, pantailak, telebistak eta inprimagailuak egunero itzaltzen dira, stand-by kontsumoak saihestuz.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-5	Erabiltzen ez direnean, telefono mugikorren, eramangarrien, tableten eta antzekoen kargagailuak deskonektatzeko ohitura dago.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-6	Ontzi-garbigailua karga betean erabiltzen da, eta iragazkiak egiaztatu eta garbitzen dira funtzionamendu eraginkorra bermatzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-7	Lehorgailua izanez gero, beharrezkoa denean bakarrik erabiltzen da, garbigailuan alde zurririk gabe zentrifugatu ondoren.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-8	Sukaldean hondar-beroa aprobetxatzen da, eta bitrozeramika eta/edo labea itzaltzen dira egosten amaitu aurretik.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

EQ-9	Aldizka, sukaldeko erazgailuaren iragazkiak eta hodiak garbitzen dira.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-10	Bitrozeramika edo labea bezalako etxetresna elektrikoek erloju programagarriak dituzte, beren funtzionamendu-denbora zehazteko eta automatikoki deskonektatzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
EQ-11	Hozkailuan ez da inoiz elikagai berorik sartzen. Gainera, elikagaiak desizoztean, zuzenean sartzen dira hozkailuan, doako hotz-ekarpena baita.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>



Maletan dagoen hozkailurako termometroak energia aurrezten lagunduko dizu, hozkailu eta izozkailuaren tenperatura doitasunez neurtuz, horren arabera doitzeko.

Urratsez urrats:



(24-26 orrialdeak, "Etxeko energia neurtzeko maleta" -ren erabiltzailearen eskuliburua)

EQ-12	Hozkailuaren tenperatura 6 eta 8 °C artekoa da, eta izozkailuarena, berriz, -12 eta -18 °C artekoa. Inoiz ez tenperatura baxuagoak.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
-------	---	---------------------------------	--------------------------------

EQ-13


Etxebizitzak gutxienez energia-neurgailu bat du.

 BAI


 EZ

Maletan aurkituko duzun neurgailuak elektrizitate-kontsumoa neurtzen lagunduko dizu, etxetresna elektrikoek kontsumoa ezagutzeko eta gehien kontsumitzen dutenak identifikatzeko.

Neurgailu hori bereziki interesgarria da etengabe funtzionatzen duten edo ordubete inguruko zikloak dituzten etxetresna elektrikoek kontsumoa ezagutzeko. Gailu hau stand by moduan aparatuak zer kontsumitzen duten jakiteko ere erabil daiteke, telebistaren kasuan bezala.



Urratsez urrats:



(16-23 orrialdeak, "Etxeko energia neurtzeko maleta"-ren erabiltzailearen eskuliburua)

ZENBAT ERANTZUNI ERANTZUN ZAIE BAI BATEKIN?

BAI BATEKIN ERANTZUN DIREN ERANTZUNEN ARABERA

ERANTZUNAK - INSTALATUTAKO EKIPAMENDUA

0etik 4ra

Instalatutako ekipamenduak, batez ere sukaldean, energia elektriko asko kontsumitzen du. Hozkailuak eta izozkailuak bezalako ekipook konektatuta daude etxebizitza hutsik egon arren. Etxebizitzaren erabileran alderdi energetikoak integratzen hastea gomendatzen da.

5etik 9ra

Gero eta tresna gehiago daude kontsumoak kontrolatzeko. Aurrezteko lehen urratsa kontsumoak ezagutzea da, energia nola banatzen den jakitea. Kontsumoen jarraipena egitea proposatzen da, merkaturatzaileen eta/edo banatzaileen informazioaren bidez, eta etxebizitzaren erabileran alderdi energetikoak integratzen jarraitzea. Stand-by egoerako kontsumoa ezabatzeari dagokionez, ekipook deskonektatzeak aurrezpen handiak lortzen ditu.

10etik 13ra

Gaur egun, kontsumoen jarraipen ona egiten da, eta irizpide energetikoak aplikatzen dira, bai ekipook erosteko, bai kontsumoen jarraipena egiteko. Irizpide horiek aplikatzen jarraitzea gomendatzen da.

05

Kontratazioa

CT-1	Kontratuaren titularrak kontratatu den energia elektrikoaren tarifa ezagutzen du.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-2	Kontratuaren titularrak egungo kontratuetatik energia-unitate bakoitzeko ordaintzen diren prezioak ezagutzen ditu.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-3	Etxebizitzaren erabiltzaileek badakite energia elektrikoaren kontratua zein alditan dagoen banatuta.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-4	Enpresa merkaturatzaile eta/edo banatzaileen web orrietara sar daiteke fakturak kontrolatzeko eta ordu-erregistroak deskargatzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-5	Energia elektrikoaren eta energia termikoaren kontratuen titularrak merkatu arautuko merkaturatzaileen eta merkatu librearen arteko aldea ezagutzen du.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-6	Urteko kontsumoen jarraipena egiten da, bai energiaren aldetik, bai ekonomiaren aldetik.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-7	Azken 2 urteetan, energia elektrikoa merkaturatzen duen konpainia aldatu da, energia-kostuak murrizteko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
CT-8	Debegesako energia-bulego birtuala ezagutzen duzu, eta bertan zure faktura optimizatzen, birgaitze iraunkorrei buruzko informazioa ematen eta energia berriztagarrien instalazioari buruzko aholkuak ematen lagun diezazukete.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

ZENBAT ERANTZUNI ERANTZUN ZAIE BAI BATEKIN?

BAI BATEKIN ERANTZUN DIREN ERANTZUNEN ARABERA

ERANTZUNAK - KONTRATAZIOA

0tik 2ra

Azken aldian kontratueta izandako aldateten eta energia-prezioen igoeraren ondorioz, oso garrantzitsua da kontratatuta dauden zerbitzuak eta energiagatik ordaintzen diren prezioak ezagutzea. Enpresa merkaturatzaileek eta/edo banatzaileek kontratuei eta kontsumoei buruzko informazio ugari jartzen dute erabiltzaileen eskura.

3tik 5era

Garrantzitsua da tarifei, kontratuei eta energiaren prezioei buruzko datuak ezagutzea eta kontsumoen jarraipena egitea. Merkaturatzaileen eta/edo banatzaileen webguneetan alta emanda ez badaude, orrialde horietan erregistratzea eta kontsumoei buruzko datuetara sartzea gomendatzen da.

Debegesako energia-bulego birtualean sartzea gomendatzen dugu, zure faktura optimizatzen lagun baitezakete.
Sartu hemen: <https://energia.debegesa.eus/eu/>

6tik 8ra

Kontsumoei buruzko datuak izatea eta kontratuen xehetasunak ezagutzea garrantzitsua da kontratuak ondo optimizatzen. Aldizka, merkaturatzaileen energia-prezioak alderatzea gomendatzen da, termino ekonomikoetan aurrezten saiatzeko.

Debegesako energia-bulego birtualean sartzea gomendatzen dugu, zure faktura optimizatzen lagun baitezakete.
Sartu hemen: <https://energia.debegesa.eus/eu/>

06

Energia berriztagarriak

ER-1	Eguzki-panel termikoen instalazioa dago, ur bero sanitarioak sortzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-2	Eguzki-panel fotovoltaikoen instalazioa dago autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-3	Geotermia- edo aerotermia-instalazioa dago.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-4	Biomasa-instalazioa dago (egurra edo pelletak) berokuntza eta/edo UBS sortzeko.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-5	Beroa eta/edo hotza aprobetxatzeko bero-berreskuragailuak daude.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-6	Partikularrei edo jabeen erkidegoei dagokienez, eguzki-panel fotovoltaikoak edo energia berriztagarrietan oinarritutako beste sistema bat instalatzeko asmoa eta/edo interesa dago.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-7	Etxebizitza energia-komunitate baten parte da.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-8	Energia elektrikoa merkaturatzen duen enpresak jatorri-bermeak ditu, eskainitako energiaren % 100 berriztagarria baita.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>
ER-9	Ezagutzen al duzu Debegesako bizilagunen komunitateetan instalazio fotovoltaikoari buruzko eskuliburua? Autokontsumoa lortzen lagun diezazuke.	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

ZENBAT ERANTZUNI ERANTZUN ZAIE BAI BATEKIN?

BAI BATEKIN ERANTZUN DIREN ERANTZUNEN ARABERA

ERANTZUNAK - ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

0tik 2ra

Merkatuan hainbat aukera daude energia iturri berriztagarrien bidez energia sortzeko sistemak ezartzeko. Kasu askotan zaila da dauden eraikinetan eta etxebizitzetan teknologia batzuk aplikatzea, baina merkatuan sortzen ari diren teknologia eta aukera berriei buruz informatzea gomendatzen da.

3tik 5era

Etxebizitzak teknologia berriztagarriren bat edo epe labur edo ertainean aplikatzeko interesa du. Garrantzitsua da dauden instalazioak ondo mantentzea eta sortutako energiaren jarraipena egitea, ekipoen eraginkortasuna eta lortzen diren aurrezkiak egiaztatzeko.

6tik 9ra

Etxebizitzak abiapuntu ona du energia berriztagarrien ezarpenari dagokionez. Etxebizitza honen eraginkortasun energetikoa handia da, eta instalatutako ekipoak ondo mantentzea gomendatzen da, eta erabat instalatuta ez badaude, teknologia mota horrekiko interesarekin jarraitzea.

Debegesako bizilagunen komunitateetan errehabilitazio jasangarriari buruzko fitxa praktikoetara eta instalazio fotovoltaiakoaren eskuliburura sartzea gomendatzen dugu. Fitxa horiek energia-bulego birtualean daude eskuragarri. Sartu hemen: <https://energia.debegesa.eus/eu/>
